

ZALAKAIN

Koreografia
JUAN ANTONIO URBELTZ

Antzerkia
ANDER LIPUS

Idazkera
HARKAITZ CANO

Artedrama
615.779.511.
info@artedrama.com

AURKIBIDEA

EPITAFIOA	03
-----------	----

EMANALDIA

JUAN ANTONIO URBELTZ	04
ANDER LIPUS	05
HARKAITZ CANO	05

EUSKAL DANTZA DRAMATIKOA	06
SINOPSIA	07
HELBURUAK	08
EUSKARAREN ERABILERA	08

ARGIA

IBILBIDE ARTISTIKOA	09
BESTE KONPAINIEKIN ELKARLANEAN	10
IKERFOLK	11

LAN TALDEA

LAN TALDEA	14
DANTZA TALDEAK	15

EGUTEGIA	20
----------	----

EPITAFIOA

He aquí el epitafio que improvisó el versolari Echehun de Zugarramurdi en la tumba de Zalacaín el Aventurero:

Lur santu honetan dago
Martín Zalacain ló
Eriotzac hill zuen
Bazan salvatucó
Eliz aldeco itzalac
Gorde du beticó
Bere icena dedin
Honratu gaur gueró
Aurrena Euscal Errien
Gloriya izatecó.

ZALACAÍN EL AVENTURERO. *Pío Baroja.*

Historia de las buenas andanzas y fortunas de Martín Zalacaín el Aventurero.

LIBRO TERCERO. LAS ÚLTIMAS AVENTURAS.

CAPÍTULO VII. EPITAFIOS.

EMANALDIA

Dantzaren eta antzerkiaren uztarria izango da literatura. Euskal literaturako klasiko handietako batean oinarrituko baita Argiaren ikuskizun berria, Pio Barojaren Zalacaín el aventurero lanean hain zuzen. Donostiar idazleak bizi izan zuen garaia eta bere historia hurbila maisutasunez eta narrazio-molde berriak sortuz idatzi zituen moduan, Argiaren nahia da euskal dantza tradizional garaikidean lengoaia eta dantzaera-molde berri bat proposatzea, ikusleei emozioen bidez gozatzeko moduko ikuskizun bat sortzea.

Juan Antonio Urbeltzen koreografiaren, Ander Lipusen antzerkiaren eta Harkaitz Canoren hitzen ZALAKAIN aurkeztera goaz.

JUAN ANTONIO URBELTZEN ABIAPUNTUA

Nahiz eta historikoki gure herriak ez duen heroia-aren figura mitikoa garatu, ez baitugu mito heroikoen tradizio bat, gure memoria kolektiboan, han eta hemen sakabanatuta aurki ditzakegu hainbat pertsonai herrikoiri buruzko erreferentzia indartsu ugari. Oraingo honetan, gure dantza tradizionalen bizitza indarberritu nahi izan dugu, hain zuzen, herri heroia horien indar bizia eszenatokira eramanez, eleberrietako heroia, Barojaren heroia ... bilatuenak. Egia esateko, temperamentuari dagokionez, gure heroia ez dira sutuak, agian ez dute hegoaldeko lurretan heroiek duten dramatikotasun teatrala, baina horrek ez du beren xarma murrizten.

Euskal dramaturgiak eskaintzen digun fikziozko pertsonaien aukera horretatik, gure proiekturako Zalakain hautatu dugu, Zalakain abenturazalea, Pio Barojak nobelatu zuen huraxe bera eszenaratzen saiatuko gara. Aurrerapauso bat da, gure herri dantzaren alorrean lehen aldiz gertatuko den erronka izango da. Proiektu honetan, dantzariak eta musikariak Ander Lipus eta Harkaitz Canoren eskutik joango dira, literatura eta dramaturgia dantzakera pre-klasikoarekin batera konbinatuz, gure herri kulturaren arlo hau ulertzeko modu berri baten bila.

EMANALDIA

ANDER LIPUSEN ABIAPUNTUA

Candonble eta Orixak dantzak oinarri zituela Augusto Omoluk zoragarri eraman zuen taula gainera William Shakespeareren Otelo, Mahabaratharen istorioak ikusi eta ikasi nituen Kalamandandalan Haridasekin Indiako Kathakali antzerki-dantza egiten, Commedia dell'arteko komerianteen antzera inprobisaketa saioak egiteko gaitasuna lortu asmoz maskara eta dantza balineseekin trebatu nintzen Mas Soegeng maisuarekin, Kanichi Hanayagirekin Japongo Nihon Buyo dantzan eta bere sinbologian murgiltzeko aukera izan nuen. Beste herrialdeetako antzerki-dantza ezberdinak ezagutu eta aztertu nituen. Eta gurean zer?

Pio Barojaren Zalakain abenturazalea nobelatik abiatuta taula gainean antzerkia bere osotasunean agertzeko aukera paregabea daukagu. Dantza, jokia, musika, kantua, jantziak... adierazpen guztiak elkarrekin uztartuko dira ikuskizun honetan. Harkaitz Canoren hitzekin biribilduko dugu amestutako proiektua. Eta nola ez, euskal kulturaren erreferentzia den Juan Antonio Urbeltz maisuaren ondoan lan egitea plazer hutsa izango da eta Zalakain eszenaratzea abentura eder bat.

HARKAITZ CANOREN ABIAPUNTUA

Sekula bururatuko ez zitzaidakeen zerbait da Zalakain abenturazalea lan koreografiko baten abiapuntutzat hartzea. Horregatik egin zitzaidan, hain zuzen ere, horren erakargarria proposamena. Garai baten erretratu paregabea den nobela bat, belaunaldi oso bat literaturara zaletzeko balio izan zuena, berriz berreskuratu, eta Pio Barojaren lana beste ertz batetik interpretatzeko proposamen paregaba delako. Anbizio handiz, gainera. Western karlista baten gisara irakur daitekeen nobela agertoki batera epika doiarekin ekartzea, Juan Antonio Urbeltzen eskura soilik dagoen zerbait delakoan nago, eta On Pioren bizitza osoko testigantza Ander Lipusen ahotan esana izan dadin egokitzea, errepikatzen zaila izango den desafio eta aukeratzat hartzen dut.

EMANALDIA

EUSKAL DANTZA DRAMATIKOA

Argia konpainiak erronka berri bati ekingo dio bere 50 urteko ibilbidean, eta mundu tradizionala modu berri batean eszenaratzeko lanari ekingo dio: argumentu dramatikoarekin egindako dantza. Zalakainek dantza-teknikan inoiz ikusi ez bezalako zehaztasuna, adierazpen dramatikoa eta emozio bidezko komunikazioa uztartuko ditu.

Gipuzkoako dantzen urrastegitik abiatuta, euskal dantza tradizional garaikiderako bidean, euskal dantza dramatikoa abian jartzeko proposamena egingo du Argiak, Zalakain ikuskizunarekin. Lan berria hezurmamitzeko inspirazio eta eduki iturriak anitzak eta aberatsak dira eta Europa osoan azken bost mendetan izandako dantzaren, antzerkiaren eta arte-draman dute oinarria. Sorkuntzara eta birsortzera bideratutako ikerketa zorrotz eta zabala eginda, balio artistiko handiko elementuak dira proposamen berrirako aurrekariak eta inspirazio-iturriak, besteak beste: italiar Berpizkundeko dantza-maisuak, Frantzian Luis XIV.ak sortutako eta Rameauk eta Noverrek doitutako balleta, edota XX. mendeko sobietar balletak. Horiek guztiek gaur egungo euskal dantzari ekarpen oparoa egin diote.

Ikuskizuna osatzeko oinarrizko abiapuntua dira gure urrats eta mudantza (urratsekin egindako konposizioak) pre-klasikoak. Taula gimnastiko-koreografikoa deitzen diogu bilduma horri, eta kalitate, plastikotasun eta naturaltasun handiko dantzaera jasotzen du. Teknika eta sasoi aldetik, dagoeneko, zailtasun eta eskakizun handia eskatzen duen dantzak dira. Teknikaz gain, urratsokin adierazpena eta espresioa lantzeko lehen mugarria 1997an ezarri genuen, Kondharian ikuskizuneko Galaiera piezarekin.

Horrekin guztiarekin, Zalakain ikuskizunean pausu eta mudantza berriak proposatuko ditugu, haien azkartasuna, zailtasuna eta indarra areagotuta; era berean, dantzaera berri eta garaikide bat sortuko dugu, dantzaeraren ikusgarritasunean arreta jarrita.

Dantzaera berri horren euskarri dramatikoa osatzeko, Zuberoako antzerki-tradiziotik edan dugu, oinarritzat pastorala hartuta. Egitura horretatik abiatuta, ikuskizunean bi talde, gorriak eta zuriak, ariko dira desafioko

EMANALDIA

dantzan, nor baino nor. Guztien artean nabarmenduko dira Zalakain literatur pertsonaia ezaguna eta Pio Barojaren narratzaile pertsonaia bera. Ander Lipusek berak jokatu du bigarren paper hau, eta bere oholtzako eta taula zuzendaritzako lanak, Argia ematera doan jauzia indartu baino ez du egiten, euskal dantza dramatikoaren egitea hain zuzen.

SINOPSIA

Martin Zalakain Urbia izeneko fikziozko herriko gazte euskalduna da. Mutil bihurria da. Ama hil ondoren, Migel Tellagorri zahar ostatzaleak hezitzen du. Karlos Ohando herriko jauntxoak gorrotatzen du. Ohando Martinen arrebaren atzetik dabil eta honek engainatu ez dezan, Martinek bere laguna den Bautista Urbiderekin ezkontzea lortzen du. Senar-emazte berriak Zaro izeneko Iparraldeko udalerri batera bizitzera joango dira, baina gerora Bautista Martinekin batera abenturetan murgilduko dira.

Abenturak Hirugarren Gerra Karlistan girotuta daude, Zalakain eta Bautista, Kapistun deituriko gizon batekin batera. Iparralde eta Hegoaldearen arteko mugan estraperlo negozioetan dabilta. Lan hauetan dabiltzalarik, Zalakain eta Bautista Santa Kruz apaizaren taldearekin elkartuko dira, behartuta, baina azkenean biek ihes egitea lortuko dute.

Lizarran eta jeneral karlistak engainatu nahian, espetxeratu egingo dute. Zalakainek espetxetik ihes egin, Katalina andregaia hango komentutik erreskatatu eta harekin ezkonduko da. Karlisten erretiradan Karlos Ohandoren morroi batek erailtzen du.

EMANALDIA

HELBURUAK

Dantzaren esparruan mugarri berriak ezartzeko anbizioa du sormen-lan berriak. Batetik, zenbait euskal dantzen eremuan sorkuntzarako bidean egindako ikerketaren emaitza artistikoa taularatuko da, Argiak beti egin izan duen moduan, koreografia berritzaileekin eta iradokitzaileekin. Bestetik, dantzaren eta dantzarien alor dramatikoan barneratuko da ikuskizun berria, euskal dantza dramatiko garaikidea sortzeko helburuarekin.

50 urteko ibilbidean izandako jarrera sortzaileak eta ekintzaileak inoiz baino indartsuago dirau, eta halako denbora-tarte luzean egindako lanari ekiteko, hainbat probintziatako eta belaunalditako artistak biltzeko helburua ere badu ikuskizun berriak.

EUSKARAREN ERABILERA

Dantzaz gain, Argia konpainiaren komunikazio-tresna nagusia euskara da. Konpainiako artisten gehiengoa Gipuzkoa, Bizkaia, Lapurdi eta Nafarroakoa da. Hiru hizkuntzako errealitate eleaniztunean, euskaraz egiten dira komunikazio guztiak. Lan-saioak eta entseguak euskara hutsean egiten dira eta komunikazio-kanaletako hizkuntza euskara da. Barne-komunikazio aldetik, beraz, euskara hutsean funtzionatuko du Argia konpainiak produkzio-lan berrian.

Ikuskizuneko kontalaria eta, oro har, ikuskizunean izango diren hitzezko adierazpen, informazio, off-eko ahots eta gainerakoak euskaraz egingo dira.

Era berean, Zalakain ikuskizunerako sortuko den berariazko material eta komunikazio guztietako hizkuntza nagusia euskara izango da. Komunikazioari eskainitako atalean adierazitako material fisikoak eta digitalak, eta haien testugintza osoa, euskaraz egingo da.

IBILBIDE ARTISTIKOA

1970eko hamarkadatik gaur egun arte egindako ibilbidean, Juan Antonio Urbeltzen zuzendaritzapean, euskal dantza tradizioanala berreskuratzeke, eta ikerketaren bidez, sortzeko eta birsortzeko egindako lanak eraman du Argia konpainia gaur egungo dantza garaikidearen oinarria izatera eta mugarriak ezartzera.

1987. urtera arte, Argiak Euskal Herriko probintzietako dantzak jasotzeko eta taularatzeko lana hartu zuen.

1987. urtetik aurrera berriz, aro berri batean sartuta, hainbat ikuskizun propio sortu eta estreinatu ditu. Honakoak:

- Irradaka (1987)
- Zortziko (1988)
- Alakiketan (1992)
- Kondharian (1997)
- Pas de Basque (2002)
- Axeri Boda (2008)
- Axuri-Beltza (2009)
- Aunitz Urtez (2012)
- Besta Berri (2013)

Horrez gain, ikuskizunotako hainbat pieza koreografiko izaera propioa duten elementutzat har daitezke, bai sorkuntzaren eta bai ikerketaren aldetik egindako ekarpenagatik, baita beste hainbanten lan koreografikoari emandako inspirazioagatik ere. Askoren artean nabarmen litezke:

- Eaurtako neska-dantza eta Axuri-beltza, Juan Antonio Urbeltzek eta Marian Arregik 1969an sortutako dantza.
- Irradaka, Irradaka ikuskizunari hasiera ematen zion kantuzko soka-dantza.

- Muriska, 70 dantzariz osatutako pastoral kutsuko ikuskizuna.
- Galaien soka-dantza, Gipuzkoako Taula gimnastiko-koreografikoa eta Iztuetaren urrastegia irauli zuen soka-dantza.
- Almute-dantza, Durangaldeko eta Arratiako urratsekin eta dantzaerarekin osatutako desafio-dantza.
- Habanera, hala bikoteekin heldukoan, nola taldean, habanera erritmoaren berezitasunari etekin osoa atera zion suitea.
- Oteizaren apostoluen soka-dantza, Jorge Oteizaren 14 apostoluak hezurmamitu zituen ikuskizuna.

Azpimarragarri da oso, ikuskizun hauetan guztietan Euskal Herri osoko jatorria duten 70-100 dantzari eta musikari inguruk parte hartzen dutela.

BESTE KONPAINIEKIN ELKARLANEAN

Argiaren sormen eta lan-gunea Donostian dago 1960ko hamarkadatik. Hasieratik, kolaborazio-planteamendua izan da Argiaren eta ohiko dantza-taldeen artean eta harreman horri esker gauzatu ahal izan dira formatu horren haundiko ikusgarriak.

Gipuzkoa osoko hainbat talde biltzen dira Argiako ikuskizunak egiteko: Haritz (Elgoibar), Kezka (Eibar), Gure-kai (Deba), Arkaitz (Añorga), Urki (Andoain), baita Mallabiako eta Ermuako hainbat dantzari ere. Horrez gain, Iruñeko Duguna taldea eta Lapurdi osoko dantzariak biltzen dituen Maritzuli Konpainiako dantzariak Argiaren ikuskizunetako ezinbesteko zutabeak dira.

ARGIA

Baina berrogei urtetik gorako produkzioetan beste hainbat taldek hartu dute parte Argiak egindako sorkuntzetan: Goizaldi (Donostia), Astigar (Astigarraga), Antiguotarrak (Donostia), Aurtzaka (Beasain), Andra Mari (Galdakao), Begiraleak (Arrangoitze), Heletako dantzariak, Iturengo joaldunak...

IKERFOLK

2000. urtetik Argia, Ikerfolk erakundean integraturik dago Dantza Ikuskizunen atalean. Ikerfolk 1985ean sortu zen euskal folkloreaken estudioari dedikatutako plataforma bat bezala.

Ikerfolk osatzen duten atal ezberdinak honako hauek dira:

DANTZAREN SUSTAPENA: Atal honek, bere ekintzen bidez, dantza tradizionala bere forma eta jatorri ezberdinetan jendearengana hurbiltzea bilatzen du, ikastaro, dantza ekitaldi ireki, hitzaldi, aurkezpen eta aholkularitzaren bidez. Bere lan eremua, euskal dantza tradizionalarekin batera beste herrialdeetako dantzetara ere iristen da. Ekintza hauek jasotzen dituen jende multzoa, dantza maisu adituenetatik, dantzarekin harreman gutxi izan dutenetara iristen da. Zentzu honetan, antolatzen diren ekitaldiak era ezberdinetakoak dira: dantza klasiko mundutik datozen dantzariak zuzendutako forma preklasikoko dantza ikastaroak, nola dantzaz gozatzeko hurbiltzen direnentzat antolaturiko dantza ganbarak.

DANTZA IKUSKIZUNAK: atal honetan, dantza tradizionalan onarritutako dantza koreografiaren sustapen edo produkzioa, nola aurkezpen eta hedapena lantzen da. Antolatzen diren dantza ikuskizun hauen bidez, gure herriko mundu koreografikoari ekarpen berri eta kalitatezkoak eskaintzea da bere helburu nagusia eta

ARGIA

ildo honi jarraiki, eginak ditu dagoeneko lau ikuskizun nagusi, beste zenbait koreografi txikiekin batera. ARGIA Euskal Dantzari Taldearen inguruan antolatzen den lan hau, Euskal Herri osoko beste dantza taldeetara zabaltzea du beste helburuetako bat, jatorri ezberdineko dantzariak, atal honetan egiten diren projektuen inguruan bilduaz. Zentzu honetan azpimarragarriak dira mugaz bi aldetako taldeekin mantentzen ditugun harreman irekiak, nola dantza garaikide eta espektakulo munduko jende ezberdinekin ditugun lankidetzak.

ARGITALPENAK: beste ataletan egiten diren ekimenen berri nola mundu tradizionalari atxikitutako, ekoizpen propioko zenbait lanen argitaratzea du helburu atal honek. Gai eremu zabal bat lantzen du: diskak, saiakera, aldizkariak, itzulpenak, eta abar.

ATONDU: jatorrian, atal honen zeregina jantzien diseinua lantzea bazen ere gaur egun beste helburu batzuk ere baditu, hala nola aholkularitza-zerbitzua, beste taldeen jantzien kudeaketa, jantzien mailegua, eta abar. Ildo honetatik, taldeek zein erakundeek gure zerbitzuak eskatzen dizkigute. Lan honen ardatza, gure herriko jantzi zibilaren inguruan ikerketa lana da: jantzi hoi elementuak, h edapen, aplikazio eta diseinua aztertu ondoren gaur egun nola hedatu daitekeen ikustea litzateke.

LIBURUTEGI, FONOTEKA ETA BIDEOTEKA: elkarteak, aurrean agertu diren atalen ekintzen inguruan, liburutegi, eta fonoteka zabal bat osatzen joan da atal horien lanetarako kontsulta eta informazio iturri bezala erabiliak izan direnak. Beste alde, bideotekan biltzen dira, garai ezberdinetan egin diren jaialdi, nola herri festa, dantza, errito eta protokolo ezberdinetaz elkarteak egin dituen filmateka lanak.

ARGIA

UDAZKENEAN FOLK: 1986tik 2004ra udazkenean Donostian egiten zen musika tradizionalaren difusio edo hedapenerako jaialdi bat bezala sortzen da Udazkenean Folk. Bere helburu nagusia, musika zirkuito komertzial ezagun eta hedatuenen ondoan alternatiba bat izatea da, sustraieko musika egiten duten eta hain ezagunak ez diren taldeak bere baitan bilduaz.



ZALAKAIN

LAN TALDEA

Zuzendaritza:	Juan Antonio Urbeltz
Taula zuzendaritza:	Ander Lipus
Idazkera:	Harkaitz Cano
Koreografia:	Juan Antonio Urbeltz
Dantzari taldeak:	Argia (Donostia) Kezka (Eibar) Haritz (Elgoibar) Duguna (Iruñea) Maritzuli (Miarritze) Elai-Alai (Portugalete)
Musika sorkuntza:	Marian Arregi , Mikel Urbeltz
Musikariak:	Marian Arregi (akordeoia), Mikel Urbeltz (arrabita), Arantzazu Mujika (arrabita), Maider Urbeltz (arpa), Dugunako Musikariak (txistua, haize tresnak eta perkusioa), Ezpelur (dultzaina), Plectro (soka tresnak)
Aktorea:	Ander Lipus
Dantza Maisuak:	Fernando Ariztizabal, Jexux Larrea, Iñaki Arregi, Garikoitz Otamendi
Talde arduradunak:	Claude Iruretagoyena (Maritzuli), Oier Araolaza (Kezka), Aritz Ibañez (Duguna), Eire Vila (Haritz)
Argiztapen diseinua:	Eragin Stac
Eszenografia:	Eragin Stac
Soinuztatzea:	Katarain
Jantziak:	Amaia Bueno, Claude Iruretagoyena
Arduradun ekonomikoa:	Garbiñe Argaña
Hedapena:	ArteDrama



LAN TALDEA

DANTZA TALDEAK

Argia (Donostia)

Hirurogeiko hamarkadaren erdialdean sortu zen ARGIA taldea. Orduz geroztik, Euskal Herrian folklore-jardueraren ezinbesteko erreferentzia izan da azkeneko berrogei urtetan.

Bere sorreratik J.A. Urbeltzek zuzendu du, hirurehun dantza eta bostehun doinu tradizional baino gehiagorekin lan eginez Euskal Herrian, Europan eta Ameriketako eskainitako kontzertu ugarietan.

ARGIA taldean eta Euskal Herriaren erreferentzia zuzenean ezagunak dira bere eszenaratze zaindua, musikarien kalitate instrumentala eta kolorea, diseinu ederreko jantzitegi tradizionalarekin batera.

1988an, neurri handiko produkzioa lantzen zuen garaia ireki zen. Bertan, mugako bi aldeetako bederatzi dantza-talderekin batera eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, ZORTZIKO izeneko ikuskizuna gauzatu zen. Confolens-eko (Frantzia) Nazioarteko Jaialdian estreinatu ondoren Euskal Herri osoan eskaini zuten.



LAN TALDEA

Kezka (Eibar)

Herrian bertan egiten diren festak, erritoak eta dantza ekitaldiak ditu Eibarko Kezka dantza taldeak bere lehentasun nagusia. 1958an Eibarko Klub Deportiboaren baitan sortutako dantza taldeak inauterietan koko-dantzekin abiatu ohi du urtea, eta Santa Kurutzetan, San Joanetan, San Andresetan eta bere burua akonfesionaltzat duen herriko santoral egutegiko festa guztietan dagokion dantzaz arduratzen dira Kezkako dantzariak.

Arrateko santutegian ezpata-dantza eskaini ohi du urtero irailaren 8an, tradizioak eguneratu eta antzokia eta plazaren arteko lotura egiteko ahaleginean, Argia dantzari taldeak eszenatokian egindakoaren ordaina plazan errotzeko konspiratuz.

2008an York-en, Ingalaterran, ospatu zen Sword Spectacular, munduko ezpata-dantzen jaialdi handienez euskal ezpata-dantzen ordezkaria gorpuztu zuen: zahar-itxuran aurkeztutako ezpata-dantza nazioarteko ezpata-dantzen adituei irentsaraziz, ontsa plajiatzeko metodoa aplikatzen denean sorkuntza eta tradizioa txanpon beraren aldeak baitira.

Iruñeko Duguna taldearekin elkarlanean Ezpalak dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia antolatzen du Kezkak, euskaldunok zilborra dugula munduari erakutsiz, eta euskaldunoi munduko zilbor guztiak enbor berera lotuta ditugula iradokiz.

1990. urtean Elgoibarko Haritz dantzari taldearen eskutik Donostiako Argia taldea ezagutzeko zorteak dantzari buruzko etengabeko ikasketan murgiltzera eramandu Eibarko taldea, inoiz bukatzen ez den ikasketa sorgi-gurpilean jira-biran dantzan aritzeko zorionera kondenatuta.



Kezka (Eibar)

LAN TALDEA

Haritz (Elgoibar)

Haritz Euskal Dantzari Taldea 1973. urtean sortu zen Elgoibarren, San Bartolometan egin ohi zen soka-dantza mantentzeko helburuarekin. Geroztik Elgoibarko tradizioen eta ondarearekiko ardura eta dantza errepertorioan sakontzea izan ditu xede nagusi. Lau hamarkada pasata, San Bartolome jaietako sokadantza plazaratzen segitzen du Haritz euskal dantzari taldeak, eta horixe du urte osoan egiten dituen saioen artean kuttunenetakoa. Herriko auzo eta festetan parte hartzen du, Aiastian San Migel festetan, Idotorben San Pedroetan eta baita Galiziako Etxeak antolatzen dituen festetan ere. 2009tik aurrera Errosarioko Amaren ezpata-dantza dantzatzen du Haritzek Elgoibarko kaleetan, Juan Antonio Urbeltz eta Argia dantza taldearen laguntzarekin sortua izan zena.

Horrez gain aipatzekoa da uztaillean Portugaleteko Elai-Alai elkartearen laguntzaz antolatzen den Nazioarteko folklore jaialdia, 1987tik gaurdaino atzerriko hamaika talde Elgoibarren ikusteko aukera zabaldu duena. Haritzek beste hainbat herritan ere eskaini izan ditu emanaldiak, bai eta Europako zenbait herrialdetan (Katalunia, Austria, Belgika...) ere.

Donostiako Argia dantzari taldea eta bere zuzendari Juan Antonio Urbeltzekin lankidetzan dihardu Haritzek azken 25 urteetan, eta 1988an Confolens-eko Nazioarteko Jaialdian Zortziko ikuskizuna estreinatu zenetik Argiak sortutako ikuskizun guztietan parte hartu dute Haritzeko dantzariak: Zortziko, Muriska, Alakiketan, Kondharian, Pas de Basque, Axeriboda, Axuribeltza, Aunitz urtez eta Besta Berri, hain zuzen ere.

Eibarko Kezka eta Debako GureKai dantza taldeekin elkarlanean aritzen da, eta baita Galdakaoko Andra Mari, Portugaleteko Elai-Alai, eta Iruñeko Duguna taldeekin ere.

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolaren baitan haurren dantzako prestakuntza bere gain du Haritzek euskal dantzari taldeak, ehunka ikasleri dantzarako oinarrizko hezkuntza eskainiz bertan.

LAN TALDEA



Haritz (Elgoibar)

Duguna (Iruñea)

Duguna-Iruñeko dantzariak taldea 1949. urtean sortu zuen Iruñeko udalak, hirian izandako dantza tradizio aberatsari modu egonkorrean jarraipena emateko. Ordutik, hiriko ospakizun nagusietan (San Fermin, Batasunare pribilejiaoren eguna, San fermin Aldapakoa, San Saturnino...) parte hartzen du dantzan eta hori du eginkizun nagusi. 2009 urtean Iruñeko ondare koreografikoa aberasteko proiektu bati ekin eta horren fruitu dira hainbat dantza-sorkuntza, esaterako, San Fermin Aldapakoaren egunean dantzatzen duten Ezpata-dantza eta San Blas eta San Juan egunetako soka-dantzak, hauek guztiak Argia dantzari taldearekin elkarlanean sortuak. Izan ere, 2007. urtetik elkarlanean ari baitira Duguna-Iruñeko dantzariak Argia dantzari taldea. Azken honen ikuskizunetan Dugunako 50 bat dantzari eta musikari parte hartu izan dute 2007az geroztik.



Duguna (Iruñea)

LAN TALDEA

Maritzuli (Miarritze)

Maritzuli konpainia 1996 ean sortu zuen Claude Iruretagoyenak , Ixtorio Mixtorio izenarekin. 1999ean bere betirako izena hartu zuen . Geroztik Maritzuli konpainiak Malandain Ballet Biarritz Zentro Koreografikoaren laguntza finantzario, profesionala eta logistikoa jasotzen du. Taldearen hasieratik, beren proiektuak arlo anitzeko artisten artean eginikoak dira. Ikuskizunak ikuspuntu kultura-aniztasun batetik sortuak dira eta perspektiba diakroniko batetik ikusiak, baino ikerketa zorrotz eta historiako testigantza fideletan oinarrituz noski. Tradizioaren inguruan eraikitako eskola bat izateaz gain, talde berritzailea dugu musika eta dantzaren munduak profesionalizatu dituzten aldetik.

20 urte hauetan, Maritzuli konpainiak ikusgarri esberdinak sortzeko aukera izan du. Ixtorio Mixtorio, Ingura Mingura, La Pamperruque, Côté cour... Côté Jardin..., Kutx ala Pil, Aurrez aurre, Nundik Nora, Lau urrats eta kitto, izan ziren sorkuntza azpimarragarrienak. Bestalde, Biarritzeko hirian egiten diren ospakizunetan dantzak berreskuratzen saiatzen da Maritzuli Konpainia, ala nola, Jondoni soka dantza eta San Martin ezpata dantza.

Claude eta Jon Iruretagoyenak urte askotan Argia dantza taldearekin dantzatzeko aukera ukan dute eta arreman on orien ondorioz, Maritzuli konpainiako haurrek "Besta Berri" ikusgarrian parte hartzeko aukera ukan zuten.



Maritzuli (Miarritze)

LAN TALDEA

Elai Alai (Portugalete)

Elai Alai dantza eta musika taldea Portugaleten sortu zen, 1962an, herri ekimenari esker eta herriaren tradizioari jarraiki. Harrezkero, ELAI ALAI elkartearen nortasuna eta itzala sendotu egin dira, bai Euskal Herrian, bai kanpoan ere, apalki baina etengabe jardun duelako Euskal Herriaren folklore eta kultura tradizional joriak berreskuratu, gorde eta zabaltzen.

Nazioarteko Jaialdi eta emanaldi ugaritan aritu da gonbidatuta taldea, arrakasta handia lortuta beti, bai entzuleen artean, bai hedabideetan ere. Euskal herri guztietako dantzak hartzen ditu taldeak bere errepertorioan, hala nola, Bizkaiko Dantzari-dantza ta jotak Gipuzkoako Ezpata-dantzak, Alabesak, Nafarroako dantzak, Xiberuko Maskaradak eta nola ez Lapurdi ta Behe-Nafarroako Inauteriak.

Ibilbide luzean ikuskizun askotxo atondu ditu, eta horietatik hauexek nabarmendu nahi ditugu: Sustraiak, Salazar, Santiago, "Lehen, Orain eta Beti" eta gaur egun Errituak eta Dantzak.

Ikuskizun horien artean bilakaera bat antzeman daiteke, bai teknikaren aldetik, bai koreografiaren aldetik ere, gure kultura gaur egungo moldeetara egokitze aldera, mende berriak azpian hartu ez dezan, garai berrietarako gauza izan.



EGUTEGIA

SORKUNTZA EGUTEGIA

Zalakain lanaren sorkuntza lanak hasita daude. Hiru fase nagusi aurreikusten dira:

Koreografiak sortzea (2016ko udazkenara arte): Juan Antonio Urbeltzen zuzendaritzapean, Argiako dantza-maisuek eta zenbait dantzarik eta musikarik koreografiak sortuko dituzte.

Koreografiak osatzea (2017ko udaberrira arte): Zalakain ikuskizunean parte-hartzen duten taldeak Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdi artean hedatzen direnez, koreografiak irakasteko blokeak prestatuko dira, eta bloke bakoitzari egokituko zaio pieza koreografiko zehatzak osatzea, Argiako dantza-maisuen zuzendaritzapean.

Ikuskizuna muntatzea (2017ko udazkena arte): prestatutako pieza koreografikoak eta antzerkia batuko dira, bata bestearen loturaren bitartez, ikuskizuna bere osotasunean amaitzeko.

Estreinaldia 2017ko azaroan Bilboko Arriaga Antzokian.

SORKUNTZA EGUTEGIA

Taldearen nolakotasunei erantzunez, emanaldiak hilean behineko maiztasunarekin egin ahal izango direla aurreikusten dugu.

Gauzak horrela, gure proposamena da 2017-2018 ikasturtean Euskal Herriko hiriburuetan eskaintzea Zalakain, eta ziklo hori bukatuta, 2018-2019 ikasturtean, herrietan.

HIRIBURUAK

2017 :

- Azaroak 11 . **Bilbo**. Arriaga
- Abenduak 16 eta 17, **Donostia**. Victoria Eugenia

2018 :

- Apirilak 14. **Basauri**.

HERRIAK

- 2018ko irailetik aurrera.